

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea



I. MODULUA IRAKASLE ZEREGINA

2022/23 ikasturtea

Moduluko koordinatzaileak:
Nekane Larrañaga



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

IRAKASLETZA ERAIKINA: OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA


Aurkibidea

1. SARRERA.....	3
2. KONPETENTZIAK.....	3
2.1. GRADUKO KONPETENTZIAK.....	4
2.2. LAN MODULARREKO KONPETENTZIAK	4
3. TALDEAREN EZAUGARRIAK.....	5
4. BESTELAKO OHARRAK	6
5. LAN GIDATUA	7
5.1. EGIN BEHARRA	7
5.2. GIDOIA	10
5.3. KRONOGRAMA.....	11
5. Ebaluazioa.....	12
1. ERANSKINA: LEHENENGO ENTREGAGAIA EGITEKO FITXA ETA JARRAIBIDEAK ...	14
2. ERANSKINA: PROZESUAREN JARRAIPENERAKO TAULA.....	16
3. ERANSKINA: AHOZKO AURKEZPENA EGITEKO JARRAIBIDEAK ETA KONTUAN HARTZEKOAK	18
4. ERANSKINA: AZKEN ENTREGAGAIA EGITEKO JARRAIBIDEAK	20
5. ERANSKINA: MODULUAREN EBALUAZIO-ORRIA.....	22

1. SARRERA

Graduko titulazioetan irakasgai bakoitzak bere gaitasun zehatzak ditu, baina horiez gain, zehar-gaitasunak ere badaude, irakasgai guztiekin lotura dutenak **eta horiek lantzea du helburu lan modular honek.**

Lehen Graduko lehen lauhileko honetan, Irakasle Zeregina moduluko bost irakasgaien artean proiektu bat garatu behar dute ikasleek taldean:



Proiektu honek bost irakasgaietako jakintzak integratzea eskatzen du, idatzizko txosten batean bildurik.

Komunikazio Gaitasunaren Garapena I irakasgaiak ekarpen instrumentala egiten dio modulari, hau da, testu akademikoak ulertzea eta sortzea; hori adierazteko eman zaio goiko irudian duen lekua. Gainontzeko irakasgaien ekarpena diziiplina horien edukiekin lotuta dago.

MODULUKO IRAKASLEAK

Garapenaren Psikologia Eskola Adinean:

Imanol Vela eta Amaia de la Fuente.

Hezkuntzaren Soziologia - Sociology of Education:

Nekane Larrañaga eta Mikel Olazaran.

Hezkuntzaren Teoria eta Historia eta moduluko koordinatzailea:

Pello Jauregi.

Irakasle Funtzioa:

Andoni Argiñano, Irakasle Berria eta Justo Bereziartua.

Komunikazio Gaitasunen Garapena I:

Garbiñe Bereziartua.

2.1. GRADUKO KONPETENTZIAK

Beheko taulan ikus daitezke Lehen Hezkuntzako Graduaren konpetentzietatik zein diren Irakasle Zeregina modulu honi dagozkionak: beren definizioa, batetik, eta konpetentzia horiek modu eraginkorrean garatzeko zehaztutako deskriptoreak, bestetik.

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN KONPETENTZIAK	DESKRIPTOREAK
G008. Harreman kritiko eta autonomo bat edukitzea jakintzei, balioei eta gizarte-erakunde publiko nahiz pribatuei dagokienez.	PENTSAMENDU KRITIKO ETA AUTONOMOA
G010. Irakaskuntza-lana berritzeko eta hobetzeko eskoletan egiten diren praktiken inguruan gogoeta egitea: Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzazkorako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea eta ikasleen artean hori sustatzea.	PRAKTIKARI BURUZKO HAUSNARKETA
G011. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgeletan aplikatzea. Ikaskuntzari, heziketa herritarrari eta kultura-aberastasunari lagunduko dion ikus-entzunezko informazioa bereiziz hautatzea.	DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA AUKERATZEA (IKT)
G012. Lehen hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarrizko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta honek dituen aukerak eta mugak ulertzea. Kalitatea hobetearren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.	HEZKUNTZA- ZENTROAREN EGINKIZUNAK: HOBETZEKO PROPOSAMENAK
G013. Euskara eta gaztelania, eta gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna erakustea bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza-testuinguruan gauzatu ahal izateko, betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.	KOMUNIKAZIO JARDUERAK

2.2. LAN MODULARREKO KONPETENTZIAK

IRAKASLE ZEREGINA MODULUAREN BERARIAZKO KOMPETENTZIAK

1.- Hezkuntza komunitatearen nahiz gizarte inguruneko edo irakaskuntza laneko arazo eta kezketatik abiatuz, galderak eta hipotesiak formulatzea eta elkarlanean ordenatzea. G010

2.- Hezkuntzaren alderdi psikologiko, pedagogiko eta soziologikotik begiratuta, ideiak aukeratzea, ikaskideen artean osatzea eta ideia berriak eraikitzea aipaturiko ezagutza arloen artean loturak eginez. G012

3.- Lehen Hezkuntzaren esparruko aztergai diren arazoak ezagututa, irakasle zereginen inguruko teoriak adibide zehatz eta errealekin lotzea, eta esperientzia pertsonalen sintesia eginez, patroia abstraktu edo kontzeptu batzuk ahalegintzea ateratzen. G008

4.- Oinarrizko hezkuntzaren arloko informazioa nork bere diskurtso propio, zehatz eta koherentean aurkeztea, euskarazko ahozko eta idatzizko azalpenen bidez, informazio horien egileen mezuak argi transmitituz. G013

3. TALDEAREN EZAUGARRIAK

Taldearen ezaugarriak honako hauek dira:

- Taldekideen kopurua 4-5 ikaslekoa izango da.
- Ikasleek beraiek osatuko dituzte taldeak. Taldekideen izenak fitxa batean idatzi eta koordinatzaileari emango diote eskuan laugarren astean. Ikasleren bat talderik gabe geldituko balitz, orduan koordinatzaileak berak osatuko lituzke taldeak.
- Laugarren astean, koordinatzaileak argitaratuko du dokumentu bat egelan non adierazten duen zein talde osatu diren eta zeintzuk diren beren kideak. Halaber, adierazi egingo du talde bakoitzari zein talde-zenbakia egokitu zaion eta zein izango den beren tutorea.
- Taldekide bakoitzak lanetan parte hartzeko konpromisoa adieraziko du, era honetara ebaluazio jarraitua egin ahal izateko. Konpromiso horri erantzutea ezinbestekoa da taldean jarraitzeko. Arazoren bat sortuz gero edo ikasleren batek hala erabakiz gero, hilabeteko epea dago ebaluazio mota hau bertan behera uzteko. Horretarako epe-muga bederatzigarren astea izango da.

- Behin lanean hasita kideren batekin arazoren bat sortuz gero, taldeek kide hori baztertzeko erabakia har dezakete, baina erabaki hori ez da erabatekoa izango harik eta tutoreari horren berri eman eta haren oniritzia jaso arte.
- Era berean, tutoreek ere eskubidea dute talde baten edo kideren baten jarduna eteteko eta DILAN dinamikatik at uzteko, haien lan dinamikan arazo larriak antzemanaz gero.

4. BESTELAKO OHARRAK

- Ikasleek irakasleren batekin **DILANaren inguruan hitz egiteko bildu nahi badute, irakasle horrek eskola-ordutan DILANerako ematen dituen tarteak balia ditzakete, dinamikak horretarako aukera emanez gero. Horretarako aukerarik ez balego, orduan klase orduetatik kanpo egin beharko lirateke bilerak (aurrez aurre edo online)**. Baina bilera horiek ezingo lirateke egin beste irakasgaien ordutegian.
- Behin taldeak osatuta, talde bakoitzari tutore bat ezarriko zaio eta hori arituko da gidari lanetan, lanaren norabideari buruzko zalantzak argitzen. Edonola ere, irakasle guztien laguntza jasoko da prozesuan zehar eta irakasle bakoitzak jardura gehigarriak eta propioak egingo ditu bere irakasgaien zehar DILAN honetako eginkizunean laguntzeko helburuarekin.
- Modu digitalean bidaltzen diren **artxibo guztien izenean DILANean esleitutako talde-zenbakia adieraztea ezinbestekoa izango da**. Artxiboa izendatzeko hurrengo adibidea kontutan harturik:



1. Entregagaia_1 DILAN taldea

5. LAN GIDATUA

5.1. EGIN BEHARRA

Modulu honetako diziplinarteko lana egiteko egoera honetatik abiatuko dira ikasleak:

Liztorreta ikastetxe publikoa Gipuzkoako Portuondo herrian dago, kostaldetik gertu, izaera industrial eta urbanoa duen ingurune batean. Herrian hamabost mila inguru lagun bizi dira, eta horietako asko industria eta zerbitzuetako langileak dira. Globalizazioaren eta migrazioen ondorioz, azken hamarkadetan etorkinen kopuruak hazkunde handia izan du, herriko kaleetan kultur aniztasuna agerikoa delarik. Momentu honetan egoera ekonomikoak okerrera egin du eta familia batzuen egoera ez da batere ona.

Ikasturtea aurrera doa, eta lehen hezkuntzako bigarren zikloko irakasleek ezin dute lana nahi bezala egin, 5. mailako ikasleek (10-11 urtekoek) ez baitituzte aintzat hartzen. Alferrik dira esanak, aholkuak nahiz aginduak. Arauak ez dira betetzen. Ikasteko giroa galtzen da maiz, ganorabako dibertsioan edota xederik gabeko denbora-pasan. Gainera, horrelako giroan elkarrekin jolasten hasten direnean maiz liskarrak sortzen dira eta batzuk bakarrik gelditzen dira.

Irakasle hauen ondoezaz jabetuta, zuzendaritzak berariazko bilera egitera deitu du Eskola Kontseilu osoa, gertatzen dena aztertu eta irtenbidea aurkitu nahian.

Bilera honetan haxe proposatu da: ikastetxearen eta inguruaren egoera aztertzea (bereziki ikastetxe barruko harremanen egoera) eta ildo batzuk proposatzea elkarrekin bizitzen ikasteko programa berria egiteko. Ikas komunitate bat egiteko oinarriak lantzeaz ere hitz egin da.

Egoera hori abiapuntu izanik, lehenik eta behin, proposatutako egoeran ageri diren egiturazko arazoak edo gakoak identifikatu behar dira. Ondoren, gako horien deskripzio xehetuagoa egin beharko da, hor gertatzen denaren interpretazio teorikoa eginez eta ikasgaietan lantzen ari garen edukiaren arteko loturak eginez.

Lanaren azken bertsioan, proposatutako egoeran gertatzen denaren azalpena jasoko da idatziz, ikasgaietan landutako eduki teorikoak kontuan hartuta. Horretarako, gakoek zer esan nahi duten, aldagai horiek eskolan nola eragiten duten, aldagaien arteko harremanak zein diren eta abar aztertu beharko da lanean.

Hona hemen lanaren jarraibideak, urratsez-urrats:

Lanaren **helburu nagusiak**:

1. Egoeraren gakoak identifikatzea eta egoera ahal bezain xeheki aztertzea
2. Arazoarekin lotura duten ezagutza teorikoak ulertzea eta lantzea

3. astea

22/23 ikasturteko koordinatzaileak egingo du aurkezpena.

4. astea

Ikasleek koordinatzaileari emango diote sortutako taldeen berri. Koordinatzaileak argitaratuko du gero talde bakoitzari esleitu zaizkion kode-zenbakia eta tutorea.

5-6. astea

Honakoak egiten joango dira ikasleak:

a) Lehenengo entregagaia osatzen hastea

Horretarako, ikasleak 1. eranskineko fitxa osatzen hastea da asmoa (“Lehenengo entregagaia egiteko fitxa eta jarraibideak”)

Horretan laguntzeko, Irakasle Funtzioan saio bat eskainiko zaio egoeraren irakurketari, eta ondoren, 5-6 asteetan zehar ikasgai bakoitzean saio bat eskainiko zaio lanketa honi.

b) Prozesuaren inguruko gogoeta osatzen hastea

Talde bakoitzak prozesuaren inguruko gogoeta bat idatzi behar du, 2. eranskinean dagoen informazioa kontuan izanik.

Horretan laguntzeko, Psikologiako ikasgaietan, beste saio bat eskainiko zaio lanketa honi.

c) Asteetan, bestalde, tutorearekin bilera bat egingo da, helburu hauekin:

- Gida ongi ulertu den ziurtatzea
- Taldea lan egiteko moduari buruzko akordio batera heldu dela eta konpromisoa dagoela gogoraraztea
- Lehen entregagairako egin beharreko urratsak argi dituzten ziurtatzea
- Elkar ezagutzea
- Bestelako zalantzak argitzea

7. astea

Honako zereginak egingo dituzte ikasleak:

- Lehenengo entregagaia amaitu eta entregatu.
- Prozesuaren inguruko taldeko gogoeta entregatu (2. eranskinean dagoen informazioa kontuan izanik).

8. astea

Tutoretza bat egingo da, helburu hauekin:

- 1) **Taldearen/nork bere dinamikari/prozesuari buruzko gogoetaz hitz egitea** (5-6. asteetan egin dutena): tutorearekin orain arteko funtzionamendua baloratu eta beharrezko bada berregituratu prozesuan zehar ongi joan ez diren alderdiak hobetzeko: bakoitzak zer ardura hartu duen eta ea proiektuaren garapenean zer gatazka izan dituzten.
- 2) **Lanaren norabideaz jardutea**: egindako lanaren feedbacka ematea (tutoreak ikasleen lana ebaluatu beharko du, bi alderdi hauek kontuan hartuz: egoera ulertzeko gakoak modu egokian identifikatu diren, edo planteatu dituzten galderen bidez iritsiko lirakekeen gako horietara). Gako horiek identifikatzera iristen ez badira, irakasleak baliabide lagungarriak emango dizkie.

Taldeari dagokio tutoretza hori irakaslearekin hitzartzea. Horretarako baldintzak: tutoretzak ezin dira ikasgaien orduetan egin, eta horretarako soziologia ingelesez dagoen ordutegia ere kontuan izan behar da (normalean aparte egon ohi da).

9. astea: Ikasgai bakoitzeko saio bana DILANerako

Aste honetan ikasgai bakoitzeko saio bat eskainiko da DILANerako, lehen entregagaien formulatu dituzten galderari eta jakin-beharrekoei erantzunak bilatzen hasteko, edo bilaketa bideratzeko.

10. astea

Aste honetan tutoreek eta irakasle taldeak emandako feedbacka eta jasotako informazio berria ordura arteko lanean integratu beharko dituzte, eta haien prozesuari buruz hausnartu.

Aste honetan ikasgai bakoitzeko saio bat eskainiko da DILANerako, taldean lan eginez bi urrats hauek bete daitezten:

- Prozesua modu kritikoan aztertu.
- Ahozko aurkezpena prestatu (xehetasunak kronograma honetako hurrengo atalean eta 3. eranskinean): ordura arte sortutako zalantzak, argitutako kontzeptuak, egoeraren interpretazio xeheagoa, eta azkenik hurrengo entregagaiari begira dituzten galdera berriak pentsatu.

11. astea

Ahozko aurkezpen bat egin beharko du talde bakoitzak (xehetasunak 3. eranskinean: “Ahozko aurkezpena egiteko jarraibideak eta kontuan hartzeak”).

- Aurkezpenaren luzera: 15-20 minutu.
- Euskarri bisualik ez erabiltzea lehenetsiko da.
- Irakasleek ez dute jakingo bakoitzak zer azaldu behar duen. Momentuan bertan irakasleek zehaztuko dute galdera bakoitza zein ikasleek erantzun behar duen.
- Aurkezpenetan bi tutore egongo dira, eta bi tutore horiek gidatzen dituzten talde guztiak.

12. astea

- 1) **Tutoretza bat** egingo da, aurkezpenean jaso duten feedbacka kontuan izanda, nola bideratu daitekeen lana azken entregagaiari begira zehazteko, izan ere, garrantzitsuak diren esparruak agertu beharko lirateke bertan identifikatuta.
- 2) Bigarren entregagaia osatzen joango dira: lehenengo entregagaiaren eskema bera izango du, baina sakontasun gehiagoz garatuta (4. Eranskina: “Azken entregagaia egiteko jarraibideak”).

13. astea

Lanaren azken bertsioa (2. entregagaia) entregatuko dute.

5.2. GIDOIA

Lanaren mamiak 4 orrialdeko testu koherentea idaztea eskatzen du, ez da inondik inora informazio-bilduma hutsa izango.

Sortu behar den testuak lan akademikoen oinarriko ezaugarriak bete behar ditu: zehaztasuna, koherentzia, eduki arrazoituak, informazio-iturrien erreferentziak eta hiztegi teknikoak.

Landuko diren konpetentziak kontuan hartuta, idatzizko dokumentuaren irakaskuntza-emitza nagusiak hauexek izango lirateke:

- Irakaskuntza laneko arazo eta kezketatik abiatuz, galderak eta hipotesiak egin dira, diziplinetako kontzeptuak eta teoriak esploratuz eta teoria horiek adibide edo kasu errealekin alderatuz.
- Diziplinetako ideiak eta osagaiak bilatu, landu eta uztartu dira, interpretazio teorikoa eraikiz, garatuz eta argudiatuz. Kontzeptuen esanahia eta ideien ondorioak argi adierazi dira. Diskurtso propioa garatzeko saiakera egin da. Ondorio praktikoa batzuk aipatu eta landu dira.

Idatzizko txostenak atal hauek izango ditu:

1.- Identifikazioa (azala):

- a. Izenburua (eta azpi-izenburua, baldin badauka).
- b. Taldearen izena eta ikastaldearen kodea, adibidez: 31(ga1), 31(ga2)...
- c. Taldekideen izen-deiturak, ofizialki agertzen diren eran.
- d. Tutorearen izena.
- e. Data.

2.- Lanaren muina (4 orrialde):

- a. Sarreratxoa.
- b. Proposatutako egoeran identifikatutako gakoak aurkeztu eta azalpenak osatu irakasgaietatik jasotako kontzeptu teorikoekin.
- c. Amaierako sintesi paragrafoa.

3.- Iturriak:

Erreferentzia bibliografikoak: APA arauen 7. edizioa jarraituz egingo dira.

4.- Eranskinak: batetik, taldeak prozesuari buruz egin duen gogoeta erantsiko da hemen (gida honetako 2. Eranskinean proposatzen diren puntuak kontuan hartuta); bestetik, modulua ebaluazio orria bete eta lanari gehituko zaio (gida honetako 5. eranskina).

EZAUGARRI OROKORRAK:

- Letra Arial 11 izango da eta lerroarteko xumea (1,0 koa). Paragrafo arteko banaketak aurreko eta atzeko 6 ptko tartea izango du.
- Idatzizko txostenaren azken bertsioa eGelako *Irakasle Zeregina* gunean horretarako sortutako karpetera igo beharko da, 2021eko abenduaren 11ean. EPE HAU EZIN DA LUZATU, EZINBESTEKOA DA BETETZEA.

5.3. KRONOGRAMA

Hauk dira ikasle taldeen zeregin nagusiak eta bete beharreko kronograma:

NOIZ	ZEREGINAK
4 astea	Taldeak osatu
5-6 asteak	Taldean: <ul style="list-style-type: none">- Lehenengo entregagaiaosatzen hasi.- Prozesuaren gogoeta abiatu.

6 astea	- Tutoretza egin
7 astea	- Lehenengo entregagaia amaitu eta entregatu. - Tutorearekin tutoretza hitzartu.
8 astea	Tutorearekin tutoretza egin.
9 astea	Lehen entregagaien formulatu dituzten galderei eta jakin-beharrekoei erantzunak bilatzen hasi, ikasgai bakoitzean DILANerako eskainiko den saioa baliatuz.
10 astea	Tutoreek eta irakasle taldeak emandako feedbacka eta jasotako informazio berria ordura arteko lanean integratu. Ahozko aurkezpena prestatu.
11 astea	Ahozko aurkezpenak egin.
12 astea	- Tutorearekin tutoretza egin. - 2. entregagaia prestatzen joan.
13 astea	2. entregagaia entregatu.

5. EBALUAZIOA

Moduluko lana ebaluatua izateko, ezinbestekoa da ikasgelako jarduerak egitea. Asistentzia kontrolatuko da eta gutxienez aurrez aurreko eskola orduen %75era etorri beharra dago.

Moduluko lanean parte hartu ahal izateko, nahitaezkoa da, gutxienez, modulu horretako 3 irakasgaietan matrikulatuta egotea.

Lan honek irakasgai bakoitzaren kalifikazioaren % 20ko balioa du. Hortaz, irakasgai bakoitzak 2 puntu eta 1,2 kreditu eskaintzen dizkio lan honi.

Lehen entregagaia eta ahozko aurkezpena baloratu egingo dira eta feedbacka emango zaie, baina ez dira kalifikatuko. Lehen entregagaiaren kasuan talde bakoitzaren tutoreak egingo du lan hori; ahozko aurkezpenaren kasuan, talde bakoitzaren tutoreak eta beste irakasle batek.

Lanaren azken bertsioaren kalifikazioak %15eko pisua izango du; prozesuak %5ekoa.

Lanaren kalitatea ebaluatzerakoan tutoreak honako hauek hartuko ditu kontuan: diskurtsoaren ordena eta kohesioa (ideiak argi antolatuta ote dauden), koherentzia (ideien arteko lotura logiko eta kontzeptuala agerikoa ote den), zehaztasuna (ideiek anbiguetatea ahalik eta gehien saihesten ote duten), sendotasuna (ideiak argumentuetan oinarritzen ote diren, iritzi soiletan oinarritu beharrean), zuzentasun akademikoa (erabiltzen diren kontzeptu teorikoak ongi ulertuta ote dauden), hizkuntzaren erabilera zuzena eta komunikatiboki egokia.

Prozesua ebaluatzerakoan tutoreak honako hauek hartuko ditu kontuan: emandako entregagaiaren garapena, feedbackari emandako erantzunak, tutoretzetara etorri diren ala ez, lan-dinamikaren egokitasuna.

Diziplinarteko lan hau gaindituko ez balitz, irakasgai bakoitzak erabakiko luke zein izango litzatekeen horren ondorioa irakasgaiaren ebaluazioan, baina ez dago lana hobetzeko aukerarik.

Testuaren edukian plagioa ikusiko balitz, deialdi horretako moduluko lana gainditu gabe geldituko litzateke.

Ikasleei behin-behineko kalifikazioa feedbackarekin batera emango zaie. Berrikuspen eskaera bat egin nahi bada, lana ebaluatu duen tutoreari 2022ko abenduaren 17an 10:00-12:00 bitartean idatziz argudiatutako justifikazio dokumentua bidali beharko diote ikasleek. Horrez gain, aurrez aurre/birtualki berrikuspena egiteko bildu nahi badute, aldeztu aurretik jakinarazi behar diote tutoreari.

1. ERANSKINA: LEHENENGO ENTREGAGAIA EGITEKO FITXA ETA JARRAIBIDEAK

1. entregagaia

Helburuak:

1. Egoera *irakurri* eta ahal bezain xeheki aztertzea
2. Egoera horri lotutako esperientziak/entzundakoak biltzea
3. Egoera diziplinetako kontzeptuekin lotzea
4. Egoera berridaztea, gakoak eta arazoak deskribatuz
5. Aurrera begira egoera sakontzen jarraitzeko galderak formulatu: zein galdera egingo nituzke/zer jakin beharko nuke diziplina bakoitzeko, egoera hau xeheago ulertzeko?

1. Entregagaia:

Galderak: *zein arazo daude eskola honetan? Irakasgaietatik zein tresna (kontzeptu, teoria...) ekar ditzakegu arazo horiek deskribatzeko eta ulertzeko? Nola lotzen dira kontzeptu edo ideia horiek gure esperientziekin eta guk ezagutzen ditugun kasu edo errealitateekin? Zein osagai behar ditugu arazoan interpretazioan edo ulermenean sakontzeko?*

Lehenengo entregagaia prestatzen laguntzeko fitxa

- Deskribatzen den egoeran zein elementu (gako) identifikatzen dituzue? Egin zerrenda bat.
 - ...
 - ...
 - ...
- Elementu horiek irakasgaietan ikusitako zein kontzepturekin / teoriarekin lotuko zenituzkete?

Egoerako elementuak (gakoak, arazoak, heldulekuak)	Kontzeptuak / teoriak

- Zein osagai behar ditugu arazoen interpretazioan edo ulermenean sakontzeko?

Egoerako elementuak (gakoak, arazoak, heldulekuak)	Beharrezko ikusten duguna

Lehenengo entregagaia idazteko eskema:

Helburua: egoera berridaztea, gakoak eta arazoak heien ikuspegitik deskribatuz.

1. orrialdea: Entregagaiaren azala.

- Izenburua (eta azpi-izenburua, baldin badauka).
- Taldearen izena eta ikasgelaren kodea, adibidez: 31 (ga1), 31 (ga2)...
- Taldekideen izen-deiturak, ofizialki agertzen diren eran.
- Tutorearen izena.
- Data.

2-3 orrialdeak: Lanaren muina (2 orrialde)

- Sarreratxoa
- 1. gakoa aurkeztu eta azalpenak osatu kontzeptu teorikoekin.
[Paragrafoen arteko kohesioa bermatu: testu antolatzaileak...]
- 2. gakoa aurkeztu eta azalpenak osatu kontzeptu teorikoekin.
[Paragrafoen arteko kohesioa bermatu: testu antolatzaileak...]
- ...
- [Paragrafoen arteko kohesioa bermatu: testu antolatzaileak...]
- Aurrera begira egoera sakontzen jarraitzeko galderak formulatu: zein galdera egingo nituzke/zer jakin beharko nuke diziplina bakoitzeko, egoera hau xeheago ulertzeko?

4. orrialdea: Bibliografia

- Erabilitako bibliografiaren zerrenda (APA arauen 7. edizioaren arabera)

5. orrialdetik aurrera: Eranskinak

- Prozesuari buruzko taldeko gogoeta.

2. ERANSKINA: PROZESUAREN JARRAIPENERAKO TAULA

EDUKIA

Zer ikasi dugu? Zertaz konturatu gara? Zein zalantza sortu zaizkigu? zer hobetuko genuke?

TALDE DINAMIKA

Ekarpinak eta partaidetza, jarrera positiboak, erantzukizuna, agertze eta puntualtasuna, gatazken konponketa

Zer izan dezakegu kontutan talde dinamikari buruz hitz egiteko?¹

EKARPENAK eta PARTAIDETZA

- Helburuak argitzen eta adosten saiatzen da.
- Taldearekin partekatzen ditu ideiak eta iritziak.
- Besteei eskatzen dizkie ideiak eta iritziak eta saiatzen da horiek zabaltzen eta osatzen, lanean integratzen. Besteei ideien argudioak eskatzen dizkie ezagutza sakontzeko.
- Ulertzen ez duenean galdetzen die lankideei, eta beste norbaitek galdetutakoari buruzko azalpena berak baldin badaki lankideei eskaintzen die.

JARRERAK

- Jokaera positiboa dauka, aktiboki entzuten du eta parte hartzen du.
- Besteen partaidetza bultzatzen du.
- Lankideei laguntza ematen die eta beren merituak aitortu ere egiten dizkie.
- Ideiak kritikatzeko, ez pertsonak.
- Talde kohesioa mantentzen saiatzen da eta lankideen gogo-aldarteak kontuan hartzen saiatzen da.

¹ Iturriak:

Johnson, David W. eta Johnson, Roger T. (2014). *La evaluación en el aprendizaje cooperativo*. SM argitaletxea.

Chica Merino, Encarnación. (2011). Una propuesta de evaluación para el trabajo en grupo mediante rúbrica. *Escuela Abierta*, 14, 67-81.

- Zailtasunen aurrean saiatu egiten da, taldekideak animatu egiten ditu eta ikaskuntzan onartu egiten ditu arriskuak.

ERANTZUKIZUNA

- Adostutako arauak betetzen ditu.
- Bere lanak adostutako epeetarako egiten ditu.
- Bere lan erritmoak ez du oztopatzen taldeko planifikazioa.
- Lana eman baino lehen orraztu egiten du.
- Hartutako konpromisoak betetzen ditu.

BERTARATZEA eta PUNTUALTASUNA

- Bilera guztietara joaten da.
- Bileretara garaiz iristen da eta bukaera arte ez du alde egiten.
- Kaleren bat egiten badu edo berandu ailegatzen bada ongi justifikatzen du.

GATAZKEN KONPONKETA

- Desadostasun edo gatazka egoeretan besteen iritziak eta iradokizunak entzuten ditu eta saiatzen da onartzen.
- Modu asertiboan adierazten ditu bere desadostasunak.
- Saiatzen da aukerak bilatzen eta irtenbide adostuak onartzen.
- Tentsioak bideratzen saiatzen da.
- Entzute eraginkorra bultzatzen du eta komunikazioa errazten du.

3. ERANSKINA: AHOZKO AURKEZPENA EGITEKO JARRAIBIDEAK ETA KONTUAN HARTZEKOAK

AHOZKO AURKEZPENAK: “Argumentazio foroa”

Argumentazio Foro-aren HELBURUA:

Lehenengo entregagaien idatzitakoa argumentatu (aurkeztutako egoeran identifikatutako gakoak eta haiek osatzeko irakasgaietatik jasotako kontzeptu teorikoak) eta bigarren entregagaia osatzen/aberasten lagunduko duten ideiak hartu.

Argumentazio Foro-aren PROZEDURA:

Irakasleek ikasleei eskatuko diete azalpenak emateko. Gisa honetako galderak egin daitezke:

- Proposatutako egoeran detektatzen duzuen “arazo” nagusia zein da?
- Zein da arazo horren jatorria?
- Ba al dira arazo horrekin lotutako beste arazo batzuk ere?
- Zein erlazio dago arazo horien artean?
- Zeintzuk dira arazo horri begira kontuan hartu beharreko kontzeptu edo ideia teorikoak?
- Zein lotura dago ideia horien eta zuek aipaturiko arazoaren artean?
- ...

Ikasleek emandako erantzunak ondo arrazoituta/argumentatuta eman behar dituzte.

Argumentazio Foro-aren EZAUGARRIAK:

- Aurkezpena egiteko egunean bi tutore (bat taldearena berarena eta bestea moduluko beste irakasle bat) eta bi tutore horiek gidatzen dituzten taldeak egongo dira.
- Taldeko kide guztiek prestatuko dute aurkezpena (taldearen ideia nagusiak eta erreferentzia teorikoak) eta aurkezpen egunean irakasleek erabakiko dute galdera zehatzak taldeko zein kideri egin.
- Luzera: 15-20 minutu.
- Euskarri bisualik EZ erabiltzea lehenetsiko da.
- Aurkezpenaren ondoren bi tutoreen feedback-a jasoko dute, moduluko lanarekin aurrera egiteko lagungarri izateko helburuz emandako feedback-a.

Ahozko aurkezpena egiteko kontuan hartzekoak

EDUKIA
- Ondo pentsatuta al dituzte (sakontasuna) esaten dituzten ideiak?
- Iritziak osatzeko argumentu sendoak ematen al dituzte?
- Ongi ulertzen al dituzte erabiltzen dituzten kontzeptu teorikoak?
- Sumatzen al da kide guztien arteko adostasuna edota koherentzia azterketa egiteko garaian?
-
DISKURTSOA
- Sarrera egokia egin al dute?
- Diskurtsoa ondo antolatuta al dago? (ideien arteko loturak argi ulertzeko moduan)
- Ideiak argi azalduta al daude?
- Hiztegi egokia erabili al dute?
- Amaiera egokia izan da?
- Aurreko hizlariak esandakoari erreferentzia eginez diskurtsoa josten (kohesionatzen) ahalegindu al dira?
-
HIZKUNTZA
- Erregistro egokia erabili al dute?
- Euskaraz zuzen aritu al dira?
- Euskaraz egoki aritu al dira?
- Ondo ahoskatu al dute?
-
HITZEZ BESTEKO KOMUNIKAZIOA: ELEMENTU EZ BERBALAK eta PARABERBALAK
- Ahotsaren tonua, intentsitatea, ozentasuna, isiluneak... egoki kudeatu al dituzte?
- Begirada ongi zuzendu al dute? Entzule guztiei begiratu al diete?
- Erabilitako gorputz-hizkerak diskurtsoari lagundu al dio?
- Orriren bat erabili badute, gehiegi irakurri gabe egin al dute?
- Nerbioak ondo kudeatu al dituzte? (aurkezpena kaltetu gabe)
- Espazioan ondo kokatu eta mugitu al dira? (entzuleengana hurbildu edota arreata esna mantentzeko)
- Azalpenak naturaltasunez eman al dituzte? (Alegia, guztia buruz ikasi gabe)
-
DENBORA
- Zegokien denbora-tartea errespetatu al dute?
-

4. ERANSKINA: AZKEN ENTREGAGAIA EGITEKO JARRAIBIDEAK

2. entregagaia

Diseinuari buruzko feedbacka jaso ondoren, plana aurrera eramango dute, proposatutako egoeran identifikatutako gakoien interpretazioa garatzeko.

Helburuak:

- Gakoien ulermenean sakontzea.
- Osagaiak integratzea eta garatzea.

Bigarren (azken) entregagaia idazteko eskema:

1. orrialdea: Entregagaiaren azala.

- Izenburua (eta azpi-izenburua, baldin badauka).
- Taldearen izena eta ikasgelaren kodea, adibidez: 31 (ga1), 31 (ga2)...
- Taldekideen izen-deiturak, ofizialki agertzen diren eran.
- Tutorearen izena.
- Data.

2-3-4-5 orrialdeak: Lanaren muina (4 orrialde)

- Sarreratxoa
- 1. gakoa aurkeztu eta azalpenak osatu kontzeptu teorikoekin.
- [Paragrafoen arteko kohesioa bermatu: testu antolatzaileak...]
- 2. gakoa aurkeztu eta azalpenak osatu kontzeptu teorikoekin.
- [Paragrafoen arteko kohesioa bermatu: testu antolatzaileak...]
- ...
- [Paragrafoen arteko kohesioa bermatu: testu antolatzaileak...]
- Amaierako paragrafoa

6. orrialdea: Bibliografia

- Erabilitako bibliografiaren zerrenda (APA arauen 7. edizioaren arabera)

7. orrialdetik aurrera: Eranskinak

- Prozesuaren inguruko taldeko gogoeta.
- Moduluaren ebaluazio-orria.

5. ERANSKINA: MODULUAREN EBALUAZIO-ORRIA

1. Moduluak aurreikusiak zituen kompetentziak lortu direla uste al duzue? (moduluko kompetentziak DILAN txostenean topatuko dituzue)
2. Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
3. Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).
4. Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
5. Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?
6. Larrialdi egoerak, DILANa egitearen berezko konplexutasunaz gain, bestelako zailtasunak sortu dizkizue?